
DENA
DA
ALDAKETA.
tecnalia
Inspiring
Business

ALDAKETA DA BIDE BAKARRA.

Aldatzea onuragarria da. Baina ez hori bakarrik. Ezinbestekoa da. Gauza guztiak aldatzen dira, denbora guztian. Eta pertsonak ere aldatzen dira, eta enpresak. Eta hala behar du. Iraultza digitalak azkartu egin du aldaketa-prozesu hori, ia imajinatu ezin den neurriraino. Egunero ikusten dugu. Teknologiak gure jokaera baldintzatzen du, eta gure gizartea. Dena aldatzen du. Posible al da hortik kanpo geratzea? TECNALIAn uste dugu ezetz, eta aldaketa horrek egunero eskaintzen dizkigun aukeren aldeko apustua egiten dugu. Horregatik gaude zurea bezalako enpresen ondoan. Enpresa horiei entzun egiten diegu, eta haiekin buruz buru egiten dugu lan, lehenbailehen egin dezaten bat aldaketaren olatuarekin.

Etorkizunerako bidea teknologia da.

Ikerketa eta garapen teknologikoko erreferentziazko zentroa gara Europa osoan. **Enpresekin elkarlanean aritzen gara**, lehiakorragoak izan daitezen eta aberastasuna eta lana sor dezaten.

Horretarako, **lantalde konprometitua dugu, teknologiarekiko pasioa duena** eta, horretaz gain, ahalmen handia I+G+Ban eta zerbitzu aurreratuetan.

Gure xedeak elkartzen gaitu: **teknologia BPG bihurtzea**. Eta gure ikuspegiak egiten gaitu berezi: industria eraldatzeko eragile izatea.

ASKO DUGU **ELKARREKIN** EGITEKO.



Egiten duguna bat dator gure izatearekin. Eta zer da, bada, TECNALIA? Esperientzia handiko eta askotariko diziplinetako profesionalen talde bat, teknologia pasioz bizi duena eta konpromisoa duena ezagutza enpresentzako negozio-aukera eta gure gizartearentzako BPG bihurtzeko. Baina ezin dugu ezer egin zu gabe, zure laguntza gabe, aldaketa teknologikoarekin bat egiteko nahirik gabe, zure konfiantza gabe. Horregatik, zure ondoan egin nahi dugu lan, zure proiektua ezagutu, eta teknologiaren bidez, zugandik hurbil, elkarlanean eta modu pertsonalizatuan enpresa lehiakorragoa eta baliotsuagoa izaten lagundu. Elkarrekin, mundua nolakoa izango den imajinatu dezakegu, eta elkarrekin sortu.

Bide luzea dugu aurretik zurekin egiteko.



LABORATEGI-ZERBITZUAK

60 urte baino gehiagoko esperientzia dugu, aditu-talde oso bat zure eskura, eta azkar merkaturatu nahi dituzun prozesuak, sistemak eta produktuak garatzen, ziurtatzen eta baliozkotzen dituzten laborategiak. Sentitu gure teknikariek ematen duten **segurtasuna, konfiantza eta gertutasuna.**

Zure negozioa lehiakorragoa izan dadin irtenbide egokiak eskainiko dizkizugu.

I+G+B-KO PROIEKTUAK

Zure enpresaren bazkide estrategiko izanik, **I+G+Bko proiektu pertsonalizatuak garatzen ditugu zuretzat,** zure negozioa lehiakorragoa izan dadin teknologiaren bidez.

Elkarrekin, oraina eraldatzeko gai den teknologia garatzen dugu. Pasioz lan egiten duten, jarduten duten sektoreak gertutik ezagutzen dituzten eta enpresei haien estrategia teknologikoan eraginkortasunez laguntzen dieten profesionalak ditugu.

Hauxe da Ikerketa, Garapena eta zurekin Elkarlana.



INBERTSIO AUKEREN GARAPENA

TECNALIA Venturesen bidez, zure I+Gari balioa emateko dauden arazoei heltzen lagunduko dizugu, eta zure negozioari hazten lagunduko diogu.

Horretarako, teknologia merkaturatzeko prozesuaren oinarrizko hiru zutabeekin konektatuko zaitugu: **ahalmen teknologikoak**, zure enpresaren emaitzak hobetzera bideratuak daudenak; **negozio-profila duten pertsonak**, ahalmen horiek negozio bihurtzeko gai direnak; eta **inbertitzaileak**, negozioa garatzeko konpromisoa dutenak.

BATZUK HASI DIRA GUREKIN BIDEA EGITEN.
HASI NAHI DUZU ZUK?

“Hauek dira gure gakoak: gogor lan egitea, ilusio eta pasio handiz, eta berrikuntzan eta teknologian oinarritzea, TECNALIAren eskutik”.

–

Mª Asun Ruiz de Gauna
QUIDEko gerentea

"Etorkizuneko merkatuaren joerei antzematen laguntzen digu TECNALIAk, baita geure kabuz bultzatu ezin ditugun garapen teknologikoei ekiten ere; horri esker, denbora gutxiago behar izaten dugu produktu berriak plazaratzeko".

–

Arrate Olaiz
IBARMIAko Berrikuntza zuzendaria

“Gure produktuak nazioartean merkaturatzeko, TECNALIA funtsezko bazkide teknologikoa da ARTECHErentzat”.

–

Roberto Ortiz de Zárate
Arteche Taldeko Ikerketa eta Garapeneko zuzendaria

“TECNALIArekin elkarlanean aritzeak aukera eman digu ENKOAren lehiakortasuna eta gaitze teknologikoa handitzeko”.

–

Juan Cruz Iriondo
ENKOAko zuzendari nagusia

"Produktu berriak sortzen lagundu dio TECNALIAk BIZKARRAri, eta osasuna hobetzeko osagai berriak ezagutzen".

–

Eduardo Bizkarra
BIZKARRAko zuzendari nagusia

“Mundua gero eta zorrotzagoa da teknologiari dagokionez, eta etengabe berritzea eskatzen du; horregatik, gure negozio-ereduan, funtsezkoa da TECNALIArekin lankidetzan aritzea”.

–

Susana Lasa
LANIKeko zuzendari nagusia

Istorio hauei eta beste batzuei buruz gehiago jakiteko:
https://www.tecnalia.com/inspiringstories

ERRONKA BERRIEI AURRE EGITEKO PRESTATUTA GAUDE. **ZUREKIN.**

GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK

Aldaketa-olatu geldiezin honetan, enpresen ondoan gaude. Erne gaude, eta oraingo eta etorkizuneko desafio eta aukerei erantzuteko prest. Etorkizunera eramaten gaituzten bide guztietan.



FABRIKAZIO
AURRERATUA

4.0 Industriaren iraultzan murgilduta gaude, non fabrikazio fisikoa eta digitala elkartzen baitira, konektibitatearen eta datuen iraultzari industria-zentzua emateko, eta zenbait gertaerak -hala nola material eta prozesu berriek, automatizazio malguak, ekoefizientziak eta jasangarritasunak- aldaketaren eragile gisa ekartzen dizkiguten berrikuntzak integratzeko.

ZERTAN LAGUNDU DIEZAZUKEGU?

4.0 Industria / Fabrikazio digitala

Fabrikazio ekoefizientea eta jasangarria

Material eta ekoizpen-prozesu berriak

Material eta prozesu industrialen ebaluazioa, diagnostikoa eta ziurtapena

Fabrikazio aditiboa

Robotika aurreratua

Ekoizpen-makina eta -sistema malgu eta adimendunak



MUGIKORTASUN
JASANGARRIA

Mugikortasunaren esparruan gertatzen ari den eraldaketa izugarri baten lehen etapetan gaude. Teknologia berriek aukera emango dute **mugikortasun-sistema adimentsuago, seguruago, garbiago eta inklusiboagoak garatzeko**.

ZERTAN LAGUNDU DIEZAZUKEGU?

Airetiko hiri-mugikortasuna

Mugikortasunaren kudeaketa adimenduna

Mugikortasun jasangarrirako energia

Garraiorako azpiegiturak

Gidatze automatizatua

Ibilgailu hibridoak eta elektrikoak



HIRI-
EKOSISTEMA

Hiriaren eta lurraldearen eraldaketa positiboari eta garapenari laguntzen diegu **balioetan oinarritutako zenbait hiri-soluzioren bidez**, **hiri adimentsu eta klima-aldaketarekiko erresiliente bat** lortzeko, eragin handiko teknologia aurreratuak aplikatuz.

ZERTAN LAGUNDU DIEZAZUKEGU?

Material eta produktu adimendunak eta funtzio anitzekoak

Eraikin eta azpiegitura jasangarriak eta adimendunak

Hiri-plangintza integrala eta dinamikoa

Trantsizio energetikoa

Eraldaketa digitala

Erresilientzia eta klima-aldaketa

Hiri-espazio eroso, osasungarri eta bizigarriak

Ekonomia zirkularra

Zahartzea, irisgarritasun unibertsala eta inklusioa

Hiri-mugikortasun jasangarria



TRANTSIZIO
ENERGETIKOA

2050ean neutraltasun klimatikoa lortzeko, **energia sakon deskarbonizatu behar da sistema elektriko % 100 berriztagarri baten bidez.** Eferbeszentzia teknologikoko testuinguru batean trantsizioa azkartzeko gero eta presio handiagoa dago, eta horrek **karbono gutxiko soluzio energetikoak** sustatzen ditu.

ZERTAN LAGUNDU DIEZAZUKEGU?

Energia berriztagarriak

Sare adimendunak eta metaketa

Eraikuntzako / hiriko energia

Industriaren deskarbonizazioa

Mugikortasun jasangarria

Energiaren digitalizazioa

Material aurreratuak eta jasangarriak

Klimaren eta energiaren arloko estrategia eta ingurumen-jasangarritasuna



OSASUNA

Prebentzio, diagnostiko, tratamendu eta errehabilitazioko etapetarako produktu eta zerbitzu pertsonalizatuen garapena bultzatzen dugu. Horietan, pertsonen osasunari eragiten dioten aldagai nagusiak hartzen ditugu kontuan: genetika, elikadura, ingurune fisikoa eta soziala.

ZERTAN LAGUNDU DIEZAZUKEGU?

Elikagaien osagaiak eta konposatu funtzionalak

Elikagai osasungarriak

In vitro diagnostikoa

Medikuntza birsortzailea

Neuroingeniaritza

Biomedikuntzako produktuak

Robotika medikoa

Osasun digitala eta irudi medikoa

Garapen farmazeutikoa

Laneko arriskuak prebenitzeko soinean eraman daitezkeen gailuak

Hiri-soluzio osasungarriak



ERALDAKETA
DIGITALA

Sekulako grina eragiten digu diseinatzeak nolakoak izango diren **prozesu, produktu eta zerbitzu digitalak**, gero eta interkonektatuagoa eta interaktiboagoa den mundu batean.

ZERTAN LAGUNDU DIEZAZUKEGU?

Adimen artifiziala

Robotika eta sistema kognitiboak

Interakzio-sistema aurreratuak eta 4.0 langilea

Errendimendu handiko konputazioa datu masiboetarako

Sistemen bizi-zikloa eta *DevOps*

Zibersegurtasuna eta konfiantza

Gauzen Internet

Sentsorika eta jarduketa

Ikusmen artifiziala

Mantentze-lan adimenduna



HONELAKO ENPRESEN BILA GABILTZA:

Teknologia-arloko harreman iraunkorrak nahi dituzten enpresak. Enpresa inkonformistak, ulertu dutenak aldatzea ez dela aukerakoa, eta beren I+G+Ba garatzen jarraitu nahi dutenak, beren bideari jarraitzeko.

Zer erronka ditu zure negozioak?
Zer behar nagusi du?
Zatoz. Hitz egin gurekin.

Elkarrekin, zure enpresa lehiakorragoa izateko eta bere gaitasun osoa erabiltzeko modua aurkituko dugu. Aldaketaren bidean gidatzeko.

T 902 760 000*
T +34 946 430 850 (International calls)

blogs.tecnalia.com

www.tecnalia.com